

**CONCOURS DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

"Concours Spécial"

Épreuve écrite

BASQUE

Du Lundi 26 septembre 2011 de 13H30 à 16H30

Durée : 3 H - Coefficient : 2

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

1990ko ekainaren 25a zen eta Felixen ikasle apartamentua jendez gainezka zegoen. Gehienak ikasleak baziren, tartean aurki zitezkeen, baita ere, ikasle arrunt batentzat handiegia eta berriegia zirudien apartamendu zabal hartako sukalde eta bi gelen artean sakabanaturik, musikari batzuk, teatroko aktore bat eta baita ere bulego enplegatu izendatu berri bat.

Ekaineko azken egunak, Bordele bezalako ikasle-hiri handietan, ikasleen azterketen bukaera seinalatzen dutelako, egun bereziak izaten dira. **Neguan eta udaberri euritsuan zehar, Bordele, azal garbi eta leuneko emazte aurpegi ongi marrazkitu bat bailitzan, bere XVIII. mendeko arkitektura burges txukun eta egituratuaren irudi hotza izaten da. Gauza jakina da, baita ere, harri grisezko hiri eder honen aberastasuna Amerika, Afrika eta Europaren artean antolatzen zen “esklabutzaren hiruko komertzial” ezagun horren ondorio zuzena izan zela.**

Baina udako lehen egunak heltzen direnean, hots, urteko egun luzeenak eta beroenak, azterketen bukaerarekin batera, hiriaren aurpegi zurbil eta ongi marrazkitua bat-batean guztiz itxuraldatzen da. Ikasleak beraien langleletatik karriketarat isurtzen dira akne leherketa bat lez zabalduz aurpegiaren luzera osoan zehar. Eta aurpegiari deformazio eta “grimace” pentsaezin guztiak jasanarazten dizkiote, beraien ospakuntza paganoek irauten duten ekaineko azken aste luze hartan zehar. Katarsi edota purgazio biologiko erraldoi baten antzera, ospakizun bakanalen enbata zoroak hiria garbiturik uzten du, hiriaren aurpegia sekula baino zurbilago, sekula baino marra finagoz marrazkiturik.

Izan ere, uztailaren lehen egunetik aurrera ikasle bakar baten arimaren itzala ere ez baita gelditzen Bordelen.

Baina itzul gaitezen ospakizunaren erdi-erdira, karriken izerdia ikasleak izaten diren egun haietariko batera, 1990eko ekainaren 25era hain zuzen ere.

“Nork hartuko du tisana?”, galdera egiten ari zen Felix, bere apartamentutik zehar, bakoitzarengana irribarre piztu batekin hurbilduz. “Baina, Antton, Antonio, Anthony, toooonni! Ez zara aterako kalera tisanarik hartu gabe, ezta?”. Anttonek tisanaren beharrik ez zuela zioen, eta bere burua erantzun hartaz konbentzitu beharragatik edo, ezetzari buru osoaz eginiko ezezko keinu bat gaineratzen zion. Eta Antton kitzikatzeko helburu garbiarekin, Felixek galdera berbera errepikatzen zuen oraindik ozenago, han bilduta zegoen jende guztiak entzun zezan bien arteko elkarriketa.

Antton zen bai, jai hartako pizti bitxia. Bordeleko ikasleen sekuritate sozialeko administrazioan lana lortu berria zuen martxoaz geroztik. Ondorioz, bere ikasle bizitza oroitzapen bat bilakatuz zihoan, ia oharkabea. Oraindik ikasle munduarekin zuen loturetarik bat Felix zen. Zaila zirudien azaltzea nola bihurtu ziren lagun hain pertsona ezberdinak. Lehenik, Antton Felix baino lau urtez zaharragoa zen (hogeita bost urte betetzeko zorian zegoen). Bigarrenik, Felix argia baina alferra zen bezain adimen ertaineko baina langile saiatua zen bera. Hirugarrenik, Antton, laborari baxenafartar baten semea zen, Felix donostiar burgesia berriaren semea zelarik. Azkenik, eta batez ere, Felixen inguruan mugitzen zen jende multzo nahasiarengandik oso urrun sentitzen zen Antton. Bera ez zen “snob” bat, ez zuen jende horren guztiaren antzekoa izan nahi. Eta sarritan hausnartzen zuen, bere baitan, galdera bera: zergatik bihurtu ote zen Felixen laguna, eta horrez gain lagun minena? Zergatik bera?

Extrait du roman Gauak eta hiriak, Ur Apalategi Idirin. Elkar, 1997

COMMENTAIRE GUIDÉ

Idazki honen azterketa gidatua antolatuko duzu ondoko gogoeta ardatz hauen inguruan :

1. Bordeleko aurpegi bikoitza, ikasle hiri / hiri historikoa.
2. Ikasle bizia (zure orroitzapenak eta testuko elementuak).
3. Mundu eta jende desberdinen topaketak Bordele bezalako ikasle hiri batean.

ITZULPENA

Frantsesera itzuliko duzu zati hau : (07 lerroa) “ Neguan eta udaberri...itxuraldatzen da. (15. lerroa)